

ANTROPOLOGIAKO SARRERA | 2022-2023

Aiala Remirez Loza

TRENEKO MUGIKORTASUN OHITURAK



ETNOGRAFIA BAT

Gaur egun garraio publikoaren erabileraren igoera nabaria da, izan bizitzaren garestitasunagatik izan aldaketa klimatikoan kotxeen CO2 emisioek duten eraginagatik. Etnografia honetan, behaketaren eta elkarrizketaren bidez, Donostiako tren geltoti batetik igarotzen diren pertsonen treneko mugikortasun ohiturak aztertuko dira. Zer nolako perfileko pertsonak igaro diren garraioan, nora doazen, zenbatero baliatzen diren trenaz, ze helbururekin...

AURKIBIDEA

● SARRERA.....	3
● METODOLOGIA.....	4
-BEHAKETA.....	4
-ELKARRIZKETA.....	8
● ONDORIAK.....	10
● ERANSKINAK.....	11
-BEHAKETA GIDOIA.....	11
-ELKARRIZKETA GIDOIA.....	12

SARRERA

Etnografia edo ikerketa lan honen helburua bidaiarien treneko mugikortasun ohiturak aztertzea da. Zer nolako usteak, jokabideak, erreakzioak... dituzten ezagutzea batik bat. Horretarako behaketa (2 ordu ingurukoa) eta elkarrizketa (40 minutu) erabiliko dira, bai kolektiboki era globalean eta pertsonalean ikertzeko.

Donostiako Groseko distantzia laburretako tren geltokia hautatu dut orain dela pare bat hilabete bertan tren bat hartu nuelako, eta ez nintzelako geltoki horretan egon duela bi urtetatik. Izan ere, Donostira etorri nintzen lehen aldian bertan agertu nintzen, txiripaz agian, eta hiri honetako oroimen berezi hura bertan hasi zelako. Nere lehenengo aldia Donostin, beraz, lehen aldia ikerketa lan baten. Zergatik ez?

Horrez gain, geltoki txiki bat izanik ez dago orduro jendez lepo eta aztertzeke ematen duena baino gehiago dagoen arren, ez nuen saturazio sentsaziorik izan nahi. Ordu lasaiak pasa nahi nituen, denbora izateko dena ongi aztertzeke eta akta txukun hartu ahal izateko. Inguruak ere laguntzen zuen. Bi nasa soilik egonda ezinezkoa zen jendea atzera eta aurrera presaka korrika ibiltzea. Herri gutxitara heltzen diren trenak igarotzen dira Grosetik, eta horrek nire alde jokatu zuelakoan nengoen. Ea horrela izan den.

METODOLOGIA

Etnografia honetako ikerketa lana gauzatu ahal izateko metodologiak bi alderdi izan ditu. Alde batetik, behaketaren bidezko azterketa bat egin izan da nasako egoera eta jendea zer nolakoa den ikusteko. Bestalde, pertsonen ohituretan gehiago arakatzeko helburuaz elkarrizketari ekin izan zaio.

BEHAKETA

GELTOKIA:

- Gaurko eguna: Astelehena da, 2022ko abenduaren 19a. Arratsaldeko laurak eta hogei dira. Kanean 15 gradu daude, eta eguna oso lainotsu dago; kostea egiten da eguzki izpi baten berri izatea.

Nabaria da jendeak lan edo ikasketa orduak bukatu dituela eta etxerako bidean doala. Batzuk Donostira bueltatzen, beste batzuk, Donostitik haien etxeetara itzultzen.

- Geltokia: Groseko tren geltokia ez da oso handia. Sarrera txiki bat du, non hiru makina eta lau torno dauden. Horrez gain, geltokiko langilearen (bakarra) bulegotxo dago. Bi nasa daude geltoki honetan, baita bi trenbide ere. Hortaz, nasa bakoitzera igotzeko eskailera eta igogailu bana daude. Kolore grisa da nagusi geltokian, lurraren hormigoitari esker. Oso garbia da, izan ere, bertan dagoen zaborrontzi bakarra behar bezala erabiltzen omen da.

Bidaiariak orokorrean ez dira gelditzen geltokian. Presaka atera eta sartzen dira, asko korrika, trena galtzeko beldurrez. Geltokiko sarreran ere badaude bizpahiru pertsona norbaiten zai. Agureek tren geltokiko langileari sarri galdetzen diote ordutegiei inguruan.

Informazioa tauletan dago, kristal batekin babestuta. Langilea ere prest dago galderak erantzuteko. Jarrera aktiboa eta positiboa du bidaiariekiko. Jendea agurtu eta gutxi batzuekin hitz batzuk partekatzen ditu.

TRENA ITXAROTEN:

- Nasaren egoera: Nasan, orokorrean, giro nahiko lasaia auteman dezakegu. Gure aldea, Tolosarako trenarena, erdi beteta dago: ez da tokirik geratzen jesartzeko baina inor ez dago zutik. Nasa ere grisa da. Gainera, metalez eginiko azpiegiturak ere badaude (aterpeko zutabeak, informazio panelak, zakarrontziak...), gris kolore hori areagotzen dutenak. Trenen kolore eskema, aldiz, beste era batekoa da: *Renfeko* trenek kolore zuria dute, morearekin eta kasu honetan, distantzia hurbileko trenak izanik, kolore gorria dute bereizgarri gisa.

Nasa, orokorrean garbi dago baina udazken-negu sasoi honetan ohikoa den bezala, trenbideak eroritako eta haizeak ekarritako hosto lehorrez josita dago. Usaiari dagokionez, tximini usai txiki baten susmoa nabaritu daiteke.

- Nasaren erabilpena: Bidaiari denak, esan bezala, zureko bankuetan eserita itxaroten dute trena. Batzuk ezerezera begira daude, beste hainbeste mugikorrean aritzen diren bitartean. Bi pertsona musika entzuten ari dira aurikularretatik. Den-denak isilik daude.
- Nasako informazioa: Denak haien ibilbidea eta ordutegia argi daukatela dirudi, inork ez baidio informazio taulari erreparatzen. Badaude pare bat pantaila ere hurrengo trenen ordutegia adierazten dutenak, baina edozein arrazoi dela medio, haietako bat itzalita dago. Noizean behin ere bozgorailuetatik informazioa helarazten du emakume baten ahots neutro batek.

BAGOIA:

- Badator trena: Trenetik jendea presaka jeitsi da. Ez da gatazkarik egon bagoirako sartu-irten trukaketa horretan. Atera direnei lehentasuna eman dio gehiengoak, eta lasai igo dira trenera. Minutu erdi edo agian pixka bat gutxiago itxaron du trenak ateetako alarmak jo eta itxi direnera arte. Ordurako, etorri berri direnak jada eskailerak jeisten eta txartela tornoetatik pasatzen zeuden, eta trenera igo direnak barruan, bakoitza bere lekua egiten.

-
- Bagoia kanpotik: Trenak metalezkoak dira, txapazkoak. Aipatu bezala, hiru koloreekin jolasten dute hauen diseinuek: zuria fondoan, eta morea eta gorria zuzen apaingarri gisa. Gorria kolorea soilik distantzia hurbileko trenek izaten dute, bereizgarri gisa. *Renfe* jartzen du tren guztietan.
 - Bagoia barrutik: Bagoi barrua osatzen duten koloreek lasaitasuna transmititzen dute. Seguraski, horretara bideratuta daude, bidai baketsua izan dezaten bezeroek. Leho handiak daude, argitasun nabaria ematen dietenak bagoiari. Horrez gain, argi zuriko bonbilak daude zabaileko alboetan. Aulkiak urdinak dira eta alboetan daude, trenean zehar pasatzeko lekua gera dadin erdian.
 - Bagoieko informazioa: Tren barruan hainbat kartel eta informazio pantaila ikusi daitezke. Lehendabizi telebista itxurako pantailak daude non publizitatea eta hurrengo geltokien hurbiltasuna ageri den, txandaka. Bestalde, badaude ere musukoa derrigorrezkoa dela esaten duten kartelak edota erretzea debekatuta dagoela gogorarazten duten pegatinak. Azkenik, trena geltokietara heltzear dagoenean bozgorailuetatik hau helarazten da.
 - Giroa: Giroa oso lasaia da, esan bezala, bagoi barruko kolore gamak funtzio hori betetzen duelako. Gainera, trena garbi dago, ez dago *grafitti* rik, eta horrek orden sententzio bat helarazten die bidaiariei. Zaborrik ere ez dago. Temperatura epela da, kanpoko epeltasuna errespetatuz.

BIDAIARIAK:

- Bidaiari kopurua: Trena bete xamar dagoela esan genezake. %60-70 tarteko okupazio du. Gehienak helduak dira. Haur oso gutxi daude. Nerabeak ere ugari dira. Agureren bat ere badago, bere bikotea ematen duenarekin.
- Bidaiarien jarrera: Ahal duena, eserita doa. Eserleku denak okupatuta daude. Denak doaz isilik, asko, haien mugikorrari begira. Nagusienak paisaiari begira doaz. Inork ez dio kasurik egiten pantailari.

HELMUGA:

- Helmuga heltzeaz: Trena puntual helduko da helmugara. Denek dakite non jeitsi behar diren, hortaz, inori ez dio larritzen egoerak, denak lasai daude. Garaiz, minutu bat lehenago gutxi gora behera, norberaren gauzak batzen hasten dira (bufanda jarri, aurikularrak gorde, txartela atera...)
- Trenetik jeisten: Inork ez du inor agurtzen. Haietako batzuk presaka jeitsi dira, lehenak izan nahian. Une txiki baten apilatu egin dita atean, agobio sentsazioa helaraziz, baina gai izan dira arin disolbatzeko. Inork atzera begitu gabe, bere ibilbideari ekin dio, tren bidai hau parentesi bat balitzan.
- Helmugako nasa eta geltokia: Jada Tolosan. Nasa hau ere grisa da. Groseko nasaren estilokoa, baina oraingoak zuhaixka batzuk ageri dira atzekaldean. Horrek grisarekin apurtu egiten du eta alaitasun edo bizitasun pixta bat ematen dio inguruari. Geltoki hau handiagoa da, sei bat aterekin eta sei trenbideekin. Nasatik geltokira pasatzeko lur azpitik igarotzea ezinbestekoa da. Nasa hau argitsuagoa da, handiagoa ere bai.

ELKARRIZKETA

ELKARRIZKETATZAILEA: Aiala Ramirez Loza

ELKARRIZKETATUA: mutila, donostiarra, ikaslea, 19 urte.

NOIZ: 2022ko abenduaren 19an

NON: Zurriolan

IRAUPENA: 40 minutukoa

LABURPENA:

BERE MUGIKORTASUN OHITURAK

Normalean bizikletan mugitzen da, baina bidaiak luzeak direnean trena hartzen du. Hiritik mugitzeko euria egiten duenean autobusa erabiltzen du, bestela bizikleta. Arrazoi nagusiak garraio hauek aukeratzeko praktikotasunari dagozkio. Bidaiak normalean bakarrik egiten ditu, noiz edo noiz ezagunen batekin topo egiten duen arrear. Aitzik, lagunekin bidaiatzea gustoko du denbora arinago pasatzen zaiolako. Treneko itxaronaldiak bere egoera pertsonalaren ongizatea zalantzan dagoenean frustranteak eta astunak iruditzen zaizkio. Denbora hori beti musikarekin igarotzen du.

TRENEKO OHITURAK

Trena egunero erabiltzen du ikastetxera joateko. Trenaren alde positibotzat erosotasuna eta bizkortasuna hartzen ditu; negatibotzat ordea, bere ustetan, sarritan beraldu heltzen direla eta ondorioz berandu iristen dela ikastetxera. Trena 13 urte zituenetik erabiltzen du, bizitzako momentu batzutan sarriago erabiliz beste batzutan baino. Euskotrena, konkretuki, gustoko du maiztasun handia duelako. Hendaiara joatea gustatzen zaio, polita da. Orokorrean bisitatzen dituen geltokiak jendetsuak bezala deskribatzen ditu, geltoki nagusiak.

BIDAI BAT EGUNEROKOTASUNEAN

Etiket zortziretan atera eta zortzirak eta hogeiean trena hartzen du ikastetxera. Beti justu-justu heltzen da. Ikastetxetik ordu bi eta erdietan ateratzen da, ordea, eta trena arratsaldeko hiruretan hartzen du etxerako bidean. Estres handia sorrarazten dio ordutegi finko bat izateak. Goizetan kafe arin bat hartu eta jantzi egiten da, motxila aurrko egunetik prestatuta uzten baitu. Geltokira iritsi eta bankutan esertzen da musika entzuten, izartze porzesuan, jendeak zer egiten duen aztertzen, trena etorri bitartean. Edozein bagoian sartzeko ohitura dauka, ez du inolongo lehentasunik; hori bai, ahal den heinean, bakarrik esertzea gustatzen zaio erosoago joateko, agian, hankak luzatu eta lo kuluxka bat egiteko.

INFORMAZIO ITURRIAK BIDAIAN

Egunerokotasunean ez du informaziorik behar, egunero tren berdinak hartzen ditu eta. Ikasturte hasieran begiratu zituen ikastetxera joan-etorriak egiteko trenen ordutegiak eta horrekin nahikoa zaio. Ezohiko tren bat hartu behar izaten badu, interneten bidez erreparatzen dio ordutegiari. Bozgorailuetatik helarazten diren abisuei adi erreparatzen die, izan ere, sarri pantailak itzalita egoten dira. Paneletan ere ordutegiak badaude, baina urtaro aldaketetan nahasgarriak izan daitezke oraindik ordutegi berriak argitaratu ez dituztelako. Ez da geltokietan galdurik sentitzen, nahiko intuitiboak direla dio (sarrera eta ireera bakarrekoak). Nasak eta trenak oso ongi adierazita daudela dio.

PROPOSAMENAK

Eserleku falta nabaritu izan du geltokiren batean. Horrez gain, ez du ezer ere ez faltan botatzen. Informazioarekoin pozik dago, nahikoa dela uste du. Gainera, geltokietan beti daude langileak (gutxienez bat) beraz ezohiko galderarik izatekotan haiengana jo eta oso ongi atenditzen zaituztela uste du.

ONDORIOAK

LANAREN INGURUAN

Hautatutako gaia bitxia iruditu zait. Aitortu beharra dutak treneko bidaiak oso bohemio bilakatu izan ditudala noizbait, eta ondoan dudan jendearen inguruan hausnartzen hasi naizela. Nora doaz, zergatik, norekin, ea norbait duten zain helmugan... Baina sekula ez ditut hain era omniszientean aztertu. Detaile bakoitza izan da ikusmira ikerketa lantxo honetan. Zer nolako jarrerak dituzten bagoiaren espazioarekiko, jasotzen duten informazioarekiko... Era berean, bitxia iruditu zait beste pertsona baten ohiturak eta sentsazioak ezagutzea.

PROZESUAREN INGURUAN

Lana planteatu baino lehen nahiko arrotza egin zitzaidan. Ez nuen nire burua ikusten besteen jokaerak aztertzen. Izan ere, nasan izan nintzenean banuen sentsazio bat zeietan uste nuen ez nintzela nasaren parte. Segurtasun kamera bat banintz bezala. Dena apuntatzen nijoan, besteek ikusten ez nindutelakoan. Agian deseroso sentiarazi nituen, batek daki. Ez da oso ohikoa trenean zure albokoak inguruko mugimendu eta portaerak aztertzea eta kuadernotxo baten apuntatzea.

Aldi berean, elkarrizketa egiteko ez nuen nire burua gai ikusten ezezagun bat gelditu eta ea 40 minutu libre bazituen galdetzeko. Agian 5-10 minutuko elkarrizketatxo bat egin beharko banu, ausartago ibiliko nintzateke eta seguraski ekingo nion. Atal hau bortitza iruditu zait esperientzia gutxi (edo bat ere ez) dugunontzat, agian, lehen mailako gehienok izango garela. Honi irtenbide egokiena topatu nahian, garraio publikoan nahiko mugitzen den ezagun bateri egin nion elkarrizketa. Eta egia esan, ezberdina zen elkarrizketa bat izatea eta ezagutzen ez nituen bere ohitura batzuen berri izateak interesgarria iruditu zait.

Amaitzeko, pertsonalki gaia gustora jorratu dudan arren, beste hainbat ikerleku izan ditut buruan; esate baterako, nere herriko kulturgune autogestionatuak. Ikerketa gaia zabala izateak ere onura asko ekar zitzakeen, bakoitzaren jakinmiña pizteko herramienta bezala erabili zezakeelako.

ERANSKINAK

BEHAKETA GIDOIA

GELTOKIA

- Gaurko eguna: asteguna, ordua, eguraldia, giro orokorra
- Geltokia:
 - Ezaugarriak (tamaina, koloreak, argia...)
 - Bidaiak geltokian (non eta zertan)
 - Informazioa

TRENA ITXAROTEN

- Nasaren egoera: deskribapena
- Nasaren erabilpena: bidaiariak non, zertan, nola...
- Nasako informazioa

BAGOIA

- Badator trenak: datozenen jarrera
- Bagoia kanpotik: deskribapena
- Bagoia barrutik: deskribapena
- Bagoieko informazioa
- Giroa: orokorrean ze sentazio transmititzen duen

BIDAIARIAK

- Bidaiari kopurua: estimazioa eta bidaiarien profila
- Bidaiarien jarrera: espazioarekiko, pertsonetikiko, informazio iturrietikiko...

HELMUGA

- Helmuga heltzeak: ze aldaketa dauden trenean helmugara iristear dagoenean
- Trenetik jeisten: jendearen jarrera
- Helmugako nasa eta geltokia: deskribapen fisikoa (hasierakoaren antzera)

ELKARRIZKETA GIDOIA

BERE MUGIKORTASUN OHITURAK

- Ze garraio erabiltzen dituzu normalean?
- Zertarako erabiltzen dituzu garraio ezberdinak?
- Zeintzuk dira garraio bakoitza hautatzeko arrazoi nagusiak?
- Norekin egiten dituzu bidaiak? Bakarrik, agian?
- Nola nahiago duzu bidaiatzea? Musika entzuten, hizketan, irakurtzen...
- Ze sentrazio izaten dituzu tren a itxaroten zauden bitartean? Zertan igarotzen duzu denbora hori?

TRENEAKO OHITURAK

- Noiz erabiltzen duzu tren a?
- Tren a erabiltzeko alde positiboak eta negatiboak aipatu
- Noiztik erabiltzen duzu tren a?
- Euskotrenean nora mugitzen zara?
- -Nola deskibatuko zenituzke tren geltokiak?

BIDAI BAT EGUNEROKOTASUNEAN

- Kontatu zure bidai prestaketa bat (sentsazioak ere aipatu)
- Izartu eta tren a hartu arte igarotzen den denbora tartea deskribatu
- Zer da nasan egiten duzun lehen gauza? Bagoi ohiturarik bai?

INFORMAZIO ITURRIAK BIDAIAN

- Bidaiaren inguruan informazioa izaten duzu?
- Nondik jasotzen duzu informazioa?
- Ze informazio trsnmititzen zaituzte geltokian edo nasan?
- Galduta sentitzen zara geltokietan?

PROPOSAMENAK

- Zer hobetuko zenun tren geltokietan? Zer botatzen duzu faltan?
- Funtsezkoa irduditzen zaizu kartelaz gain langileren bat egotea?